



3 PSE-EE

"Kiroldegia berritzeko proiektu bat badago jadanik"

Lasarte-Oriako sozialistek joan den legeladian onartu zen kiroldegia berritzeko proiektua berrabiarazteko eskatu dute. Euren hitzetan aurrekontu ofizialetan agertu ez, eta Udaleko aurrekontuen aldizkarian konkurtso publiko bidez 120.000 euro proiektu berri bat diseinatzera bideratuko direla irakurri dutenean etorri da ezinegon.

5 KUKUKA

Dantza eta Antzerki astea amaitu dute Kukukakoek

Larunbata eta igandean eskainitako emanaldiekin amaitu da antzerki eta dantza astea. Helduek Klaketak Klak antzezlan eta dantza garaikidea eskaini zituzten Manuel Lekuonan larunbatean. Igandean, azken egunean, Dantzaz Blai eguna izan zen. Euskal dantza eta sorkuntza uztartu zituzten eguerdian indar handiko emanaldiekin. Dantza garaikidearen txanda arratsaldean izan zen. San Pedro Jaietan ere ikusiko ditugu, omenduak izango baitira.



Ohi bezala, intentsitate handiko partida jokatu zuten Izkiña eta Txindoki taldeek Ostadarrek antolatutako herriko areto-futbol txapelketako finalean. Azkenean, Oscar Garcaren mutilek irabazi zuten neurketa eta iazko txapelkunak kiroltasun osoz onartu zuen porrota. Txapelketako jokalaria onena Ander Petxarroman izendatu dute eta atezain onenak Mikel Godoy eta Jokin Alaña.

I txura polita hartu zuten larunbat arratsaldean Lasarte-Oriako kiroldegiko harmailek. Jendetza hurbildu zen pankarta eta guzti euren mutilak animatzera.

Partida hasi bezain pronto aurreratu zen Izkiña Iñigo Jakaren golarekin. Beste bi ere sartu zituzten 23. minutuan Unai Latailladek korer bidez eta 26. nean Ares Gonzalezek penaltiz.

Txindoki ez da erraz amore eman zalea ordea, eta Javier Gomezek distantziak laburtu zituen. Gutxi iraun zien pozak iazko txapeldunei. Izan ere, Ares Gonzalezek hurrengo minutuan markagailuan 4-1ekoa -bere bigarren golarekin- jarri baitzuen.

Minutuak aurrera zihozten eta Txindoki saiatu arren, Izkiñako mutilak defentsan sendo eta uneoro ondo kokatuta ikusi genituen, urduritasuna aldageletan utzi eta baloi bakoitza azkena bailit-

Izkiña txapeldun

Txindoki iazko garailea mendean hartu du 5 eta 2ko emaitzaz



Ohi bezala, irabazle eta galtzaileek talde-argazkia atera zuten ikurrina eta trofeoekin, kiroltasunez.

zan defendatuz.

Baina lan horretan ari zirela, penaltia egin eta Txindoki tabernako Joseba Mugak penaltia gauzatu zuen 4-2koa ezartzeko.

2013-2014ko edizioko finala emaitza horrekin amaituko zela zirudienean, azken minutuan, Izkiñak doblepenalti bidez behin betiko 5-2koa ezarri zuen.

Pozarren zen Oscar Garcia Izkiña tabernako entrenatzailea garaipena lortuta: "Txapelketa handia osatu dugu, gogorarazi behar da Liga Erregularra Txindokik irabazi zuela, aurretik izan genuela, baina partida bakarrera edozer gauza gerta daiteke. Oso harro nago mutilek egindako partidaz eta Txindoki ere goraiatu egin nahi nuke aurkari eta lehiakide bikaina izan delako. Orain ospatzea tokatzen zaigu".



Herriko txapelketari ez zaio abiadura, kalitate eta intentsitaterik falta izan.

Kontsolazio finala

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partida Izarra Bitxitegia eta Balerdi Harategiaren artekoak erabaki zuten. Finaleko emaitza beraz irabazi zuen Izarrak A. Her-

nando, C. Segura, A. Intxausti (2) eta J. Los Arcosen golekin. Balerdiaren golak E. Briones eta E. Odriozolak sartu zituzten.

Finaleko jokalaria onenaren saria Izkiñako Ares Gonzalezentzat izan zen.

Bideo Lagunak
TIEN 21
Etxekotresna elektrikoetan adituak



DENA ORDAINDU

- 6 hilabetetan interesik gabe
- 12 hilabetetan interesik gabe
- 21 hilabetetan (UTB %2,23)

Adituak dio



Arkaitz Illarramendi Munduko Txapelketa, txapelketa mundiala!

Ostegunean hasi zen hilabetez luzatuko den Futboleko Munduko Txapelketa, batzuen zorionerako eta besteen zorigaiztorako, ze, ezin ukatuko didazue futbolak, are gehiago egunotan, ez duela inor epel uzten. Gustukoa ez dutenek ere futbolaren inguruan mintzatu ohi dira; telebistan ez dutela besterik ematen, batzuen eta besteen soldatak lotsagarriak direla, etab. Futbolak aldekoak eta kontrakoak ditu eta ez dago iritzirik ez duenik.

Argi dago goi mailako futbolak aspaldi utzi ziola kirol hutsa izateari eta gaur egun negozio iturri emankorra bilakatu dela. Hori ukazina da. Gehiegietan, jokariak produktu/merkantzia/ multinazionalen irudi dira kirolari izatearekin batera, eta batzuetan beren benetako lanbidearen gainetik; arropa, autoak, elikagaiak, perfumak, etab. iragartzen dituzte.

Baina guzti horrez gain, futbola beste gauza asko ere bada: elkarkidetzatza, laguntasuna, talde-lana, ilusioa, esfortzua, pasioa, zirrara. Gehiegikerian erori naizela pentsatuko duzue askok eta agian horrela izan daiteke. Edo motz geratu ote naiz? Ariketa bat proposatzen dizuet. Begiak itxi, irudimena askatu eta amestu Brasilen jokatzeko delako. Gehiegikerietara jo dudala pentsatzen jarraitzen duzue?

Euskal Selekziorik gabe ere, onartuko dut Munduko Txapelketa norgehiagoka asko ikusiko ditudala, neutraltasunetik eta futbola kirol bezala ikusiaz inguratzen duten gainontzeko guztia albo batera utzita. Betidanik futbola (kirol bezala ulertuta) gertutik bizi izan dugunontzat plazer handia baita lau urtetik behin horrelako kirol ikuskizunarekin gozatu ahal izatea.

Futbola da dena

Futbola da kirol erregea. Aurreko astean hasi zen Munduko Txapelketa eta dagoeneko zaleek tabernak bete dituzte partidak ikusteko. Halako txapelketekin, lagun koadrillen edota etxean, eztabaidek kirol zaletasuna gaiditzen dute. Batetik, futbolak egun mugitzen duen diru kopuru izugarria dago. Brasilen herritarrak, kalera atera dira modu masiboan txapelketa honetan inbertitutako dirutzak eta lan ezberdinetan egon diren ustezko gehiegikeri eta iruzurrak salatzen.

Diru hori hezkuntzan edota osasun zerbitzu publikora bideratu izan balitz, herritar guztiak onuradun izango zirela argudiatuz. Tartean, txapelketarako beharrezkoak omen ziren eraikinak egiteko, milaka lagun euren "etxeetatik" bota dituzte hauek eraitsi eta munduko izar ahaguztidunak diren

futbolari, luxuzko futbol zelaiak eskaintzeko.

Bakarrrik aipatutakoagatik, gogoetarako tartea hartu beharko litzateke eta behingoz hausnartu zer nolako gizarte eraikitzen ari garen.

Bestetik noski, Euskal selekzioaren falta dago. Espainiarekin, edota "La Roja"-rekin joan ez, aberriarekiko koheren-tziagatik noski, eta beste edozein herrialdeko taldeen zale sutsuak bilakatzen direnak ditugu gure artean egun hauetan. Beste batzuek berriz, jokari onak eta tartean euskaldunen bat dagoela eta, ixilpean animatzen du "rojigualda".

Egia da futbolak ere, gainontzeko kirolek bezala, aldeko beste ezaugarri asko dituela. Tartean herriko taldeak dira adibide, lagun artekoak, horietako bat Texas, bere 50.urteurrenean Udalak omendu egingo du festetan.

Talariatik

Hemeroteka

Duela 1116 ale

1996ko uztailaren 12ko alean, TXINTXARRI-k herriko kirol taldeen inguruko gehigarria kaleratu zuen San Pedro jaien osteko zenbakian.

Talde hauetako bat zen Texas-Lasartearra Kirol Elkarte. Orduan 35 urte betetzen zituen eta 113 bazkidek osatzen zutela aipatzen zuen Anjel Lopez entrenatzaileak.

Hainbat zailtasun aipatzen ziren, finantzaketa esaterako. "Udal patronatuak diru gutxi ematen du, baina instalazioen erabilera kobratzen ez digunez, kostuak merketu egiten dira".

Etorkezunera begira taldea nola ikusten zuen galdetuta, "Texas-Lasartearra berdintsu jarraituko duela iruditzen zait. Jendea inguratzeko badazaio, osatuko ditu taldeak eta izango du, bai nork entrenatu, bai nork lagundua".

"Futbolak hiru aldi ditu: aurrendenboraldia (hasiera, gogo handia...), erdialdea (negua, hotza, etxemina...) eta amaiera (udaberria, partidotxoa jokatzeko amorrua...). Batzuek beste bat egiteko, ordea, jarraipena, egunerokotasuna beharrezkoak dira". Aurrera egin du taldeak, eta aurten bere 50 urteurrenean udalak omenduko du.

Finantzaketa
Bazkideak, Arregi Elektrizitate eta Euskadiko Kutxa dira, batez ere, diru horietan gaituztenak. Udal Patronatuak diru gutxi ematen du, baina instalazioen erabilera kobratzen ez digunez, kostuak merketu egiten dira. Egun, 1000 taldeentzat merkeak dira entrenamenduetako eta partidak; aldiz, kirolariarentzat eta familientzat garestiak; izan ere, Udal Patronatuaren urteko kuota ordaindu beharra biskate zabiltzaz. Jokalariak, ordea, kanpou dabilako eslo, ezin diote etekirik ateratu kuota horri, eta, hori dela medio, aurretik, Erregio-ko taldearekin, kompostibide batera irisi behar izan dugu.

Dena den, eta beste gure laguntza gaxiari gabe, ibil-taldeen mantentzearen aldean, laguntzen diren erakundeak Real Sociedad futbol-kluba da. Errore laguntzen dugu, eta beraz esker bizi gaitu asko, bai, behinik behin, honelako mailan.

Herrikoa
Herrikoa ez da bakarra. Batek, kanpou ibiltzeko (entrenamenduetan, partiduetan, afarietarako) eta herrikoak (taldeko) elkar elkarrekin eta erregioetako taldearekin elkar elkarrekin ematen dituzte neska-makurak. Herrikoak ez dira, maiz, eskola eta etxea baino ez dute izaten. Bestalde, elkarri eraria hartzen ikusten dute; herri-gatik, bazterrean, garasotara ere egin beharra izaten dugu.

Herrez gain, lehiatzen ikasi beharra daukate. Edonok, une-umetarik, inbentario-omoz jokatu du. Hori konsegiaria da, modu horretan bazterrean laguntzen du eta. Gainera, horiek ere inbentario izan dezakete, profesionalak izatera iritsi daitezke.

Dena den, kontuz ibili behar da. Herriko talde arteko pikeak eta mokokak baztertu egin behar dira, aha bada. Lehiatu bai, baina amorruak gabea, naturala.

Aurrera Begira
Texas-Lasartearra berdintsu jarraituko duela iruditzen zait Jendea inguratzeko baxo, osatuko ditu taldeak, eta izango du, bai nork entrenatu, bai nork lagundua.

Bakarrrik aipatutakoagatik, gogoetarako tartea hartu beharko litzateke eta behingoz hausnartu zer nolako gizarte eraikitzen ari garen.

Bestetik noski, Euskal selekzioaren falta dago. Espainiarekin, edota "La Roja"-rekin joan ez, aberriarekiko koheren-tziagatik noski, eta beste edozein herrialdeko taldeen zale sutsuak bilakatzen direnak ditugu gure artean egun hauetan. Beste batzuek berriz, jokari onak eta tartean euskaldunen bat dagoela eta, ixilpean animatzen du "rojigualda".

Egia da futbolak ere, gainontzeko kirolek bezala, aldeko beste ezaugarri asko dituela. Tartean herriko taldeak dira adibide, lagun artekoak, horietako bat Texas, bere 50.urteurrenean Udalak omendu egingo du festetan.

Herriko talde arteko pikeak eta mokokak baztertu egin behar dira, aha bada. Lehiatu bai, baina amorruak gabea, naturala.

Aurrera Begira
Texas-Lasartearra berdintsu jarraituko duela iruditzen zait Jendea inguratzeko baxo, osatuko ditu taldeak, eta izango du, bai nork entrenatu, bai nork lagundua.

Bakarrrik aipatutakoagatik, gogoetarako tartea hartu beharko litzateke eta behingoz hausnartu zer nolako gizarte eraikitzen ari garen.

Bestetik noski, Euskal selekzioaren falta dago. Espainiarekin, edota "La Roja"-rekin joan ez, aberriarekiko koheren-tziagatik noski, eta beste edozein herrialdeko taldeen zale sutsuak bilakatzen direnak ditugu gure artean egun hauetan. Beste batzuek berriz, jokari onak eta tartean euskaldunen bat dagoela eta, ixilpean animatzen du "rojigualda".

Egia da futbolak ere, gainontzeko kirolek bezala, aldeko beste ezaugarri asko dituela. Tartean herriko taldeak dira adibide, lagun artekoak, horietako bat Texas, bere 50.urteurrenean Udalak omendu egingo du festetan.



1944. urtean inauguratu zen futbol zelaiaren herria. KUTXA FOTOTEKA


Iruditan

Zaletasuna herrian

Futbol zaletasunaren adierazle dira herrian izan diren talde ezberdinak. 1923an Biyak Bat taldea sortu zen Oria eta Lasarten zeuden taldeak batzeko asmoarekin. Oriako Beti Aurrera eta 1931ean Club Deportivo de Oria jaio ziren ostean. Caddies Club taldeak urte batzuk beranduago, arrakasta izan zuen ere. Gerra Zibilak txapelketak eten zituen eta 1940.urtean martxan jarri ziren gurean gaur arte. C.D Lasarte desagertu zen 1946an S.D Michelinen sorrerarekin. Ostean, Texas, Lasartearra, Txartel eta Ostadar iritsi ziren.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:
Nerea Eizaguirre, Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

PSE-EE



Jesus Zaballos eta Txus Alonso PSE-EEko kideak etxez etxe banatuko duten afixa eskutan dutela.

Kiroldegia berritzeko plana

PSE kexu Udalak 120.000 euro aurreikusten dituelako proiektu berrirako

Lasarte-Oriako sozialistek joan den legeladian onartu zen kiroldegia berritzeko proiektua berrabiarazteko eskatu dute. Euren hitzetan aurrekontu ofizialetan agertu ez, eta Udaleko aurrekontuen aldizkarian konkurtso publiko bidez 120.000 euro proiektu berri bat diseinatzera bideratuko direla irakurri dutenean etorri da ezinegona.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos eta Txus Alonso PSE-EEko kideek prentsaurrekoa eman zuten ostiral arratsaldean.

Kiroldegia berritzeko 2010. urtean proiektu bat onartu zutela gogorarazi dute, hori dela eta, ez dute ulertzen zergatik agertu den Udaleko aurrekontu aldizkarian 120.000 euro bideratuko direla konkurtso publiko bitartez proiektu berri bat diseinatzera.

Sozialisten proposamena

Herriko sozialisten planak solairu bat gehitzea aurreikusten du, eta orain daudenak aldatzea.

Hau da, zero solairuan *hall* eta aldagela berriak egitea proposatzen dute, ahalmen urrikoentzako komunak, langileentzako aldagelak eta solairuetara iristeko eskailera berriak ere bai.

Lehen solairuan, besteak beste, administrazio bulego berriak, igerilekuaren kanpoko zatia handitzea eta

bide batez aprobetxatzea aurreikusten dute.

Azkenik, bigarren solairua birmoldatu eta 250 metro karratu eta 125 metro karratuko sala bana jartzea dute pentsatuta, bizikletak eta korrika egiteko zintak kalera begira izango lituzkeena. Beste berrikuntza nagusia ezindu fisikoentzat azken solairurainoko igogailua jartzea da.

“Gure proposamenarekin erabiltzaileak ez lirake kalteuak suertatuko, izan ere obra fase ezberdinetan egitea aurreikusten dugu kiroldegia guztiz itxi beharrik gabe”, azaldu zuen Zaballosek, “orain falta den bakarra lanak hasteko finantziazio iturri bat lortzea da”.

SAN PEDRO JAIK Zikiro afarirako txartelak salgai

San Pedroetan ohi bezala Ttakunek zikiro afaria antolatuko du ostiralean, ekainak 27, 21:30etik aurrera Okendo plazan.

Honetarako elkarteak txartelak salgai jarri ditu 20 eurotan Jalgin eta Ttakuneko bulegoan bertan.

Antolatzaileek parte hartu nahi duten herritarrei ahalik eta lasterren eskuratzea gomendatzen diete.



HEZKUNTZA

Ikastaro arautuen matrikulazioa HHI-n

Lasarte-Oriako EPA-HHIk hurrengo ikasturterako araututako gaien matrikulazio epea irekiko du gaur.

2014-2015 ikasturtean, ikasgai arautuei dagokionez, lau maila eskaintzen ditu zentroak. Batetik, hasierako ikasketak, bestetik oinarrizko ikasketak eta Bigarren Hezkuntzako graduatua lortzeko edo Goi Mailako Ziklotarako sarbide frogagainditzeko saioak ere izango dira.

Zentroko kideek jakin arazi dutenez, ez araututako eskaintzaren matrikulazioa, hala nola, ingelesa, frantsesa, nutrizioa edo artea, irailaren 8tik aurrera egingo da.

Beraz, ikasketa hauetan interesa duten herritarrek www.epalasarate.es orrialdean, EPA-HHI-ren egoitzan, Osasun Zentroko eraikineko azken solairua, info@epalasarate.es helbidean edo 943 366 608 eta 943 376 443 telefonoetan eskuratu dezake informazio gehiago. Izena ematea EPA-HHIren egoitzan egin behar da ekainaren 30a baino lehen.

SAN PEDRO JAIK

Sorgin Dantzako zapia eta entseguak

Ttakun Kultur elkarteak urtero legez, San Pedro jaietan Sorgin Dantza antolatuko du ekainaren 27an, 16:30etik aurrera.

Dantzariak Sorgin Dantzako blusa janzteaz gain, zapia ere jartzen dute soinean.

Antolatzaileek jakitera ematen dute, zapirik ez duten dantzariak Ttakun kultur elkarteko bulegoan edo entseguetan eskuratu dezaketela. Bi motako zapiak daude, batetik akrilikoak 4 eurotan eta besteak telazkoak 9 eurotan.

Bestalde, Sorgin Dantzan atera nahi duten herritarrei gogorarazten zaie, astearte eta ostegunetan 20:00etatik aurrera entseguak Okendo plazan egiten direla. Azken saioa ekainaren 26an izango da.

Euria eginez gero, antolatzaileek jakin arazten dute Landaberri-Garaikoetxea eraikinean egingo lirakekeela saioak.

Elkarlana eta partehartzea pailazoen emanaldietan

Aurreko asteetan berri eman agenuen bezala, Kukuka eta Zambra dantza taldeak herriko pailazoekin, EOSekin eta Donostiako Orfeoi Txikiarekin batera Euskal Herrian barrena bira egiten ari dira. Honetarako bereziki herriko bi dantza taldeek Jon Maiak idatzitako Abuela Maria Luisa kantarako dantza bat berezia osatu dute gure herrian dagoen aniztasuna erakutsiz.

Zambra eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako sei kidek parte hartu dute eta sevillana eta euskal dantza tradizionala uztartzen duen koreografia prestatu du maider Oiartzabalak.

Ostegunetan, EOSein egoitzan entsegu orokorra izan zuten orkestrarekin eta Orfeoi Txikiarekin. FEVAS Euskal Herriko urritasun psikikoa duten pertsonen elkarte



Kukuka Antzerki eta Dantza eskola eta Zambra dantza taldeko kideak Anakletorekin.

KATXIPORRETA

kideak izan zituzten ikusle modura eta hauek ederki gozatu zuten.

Ostiralean, berriz, Gasteizko Principal antzokian izan ziren eta larunbatean Bilboko euskalduna jauregian.

Aste honetan, Iruñean Baluartan izango dira 18an eta 20ean Donostian, Kursalean.

Saio berezia San Pedroetan

Bestalde, Ane pirata eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen, bisita izango da San Pedro jalen barruan. Hitzordua ekainaren 30ean, 17:30ak aldera da Andatza plazan.

Emanaldi berezi izango da lasarteoriarren parte hartzea ere izango baita.

Lehenik kantuz eta dantzaz osatuko saioa izango da eta honetarako, herriko koadrila ezberdinei deialdia egiten diete pailazoek.

Koadrila bakoitzak doinu bat abestu eta dantzatuko du, hau, emanaldia baino egun batzuk lehenago jakinaraiko zaiei koreografia prestatzeko.

Oholtza gainean pailazoekin dantza egin nahi duten koadrila guztiek eman dezakete izena ekainaren 20a baino lehen Katxiporretako telefonon, 943 368 404.

“Ez dago adin mugarik, ez da ondo dantzatu beharrik ere, edonork parte har dezake, haurrak, gazteak, familiak, adinduak, ... Bi dira betebeharreko baldintzak: ondo pasatzeko gogoia eta koadrila bakoitza bere blusarekin oholzaratzea,” jakinarazi dute pailazoek.

Bestalde, amaieran, Jalguneko gazteekin batera “Pausoka-pausoka” abestiaren flash-moba ere grabatuko dute.

Beraz, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek koadrilak, haur eta gaztetxoak animatzen dituzte San Pedroetako saio dibertigarri honetan parte hartzera.

Albokak erreperitorio berria aurkeztu du

Brigitarren komentuan kontzertua eskaini zuen larunbat arratsaldean herriko abesbatzak

Alboka abesbatzak kantutegia berritu du eta azken hilabeteotan egindako lana aurkeztu zuen asteburuan Brigitarren komentuan emandako ordubete inguruko kontzertuan. Jende asko bildu zen herriko abesbatza entzutera eta txalo zaparrada handiarekin agurtu zituzten sei zati eta hamaika doinu eta erritmo uztartu zituen larunbat ilunabarreko emanaldia amaituta.

TXINTXARRI

Kontzertua sei zatitan banatuta egon zela esan daiteke. Mota eta estilo guztietako kantuak interpretatu zituen Albokak.

Batetik, Karl Jenkis autore galestarraren "Sabat" Mater piezaren hiru zati eskaini zituen abesbatzak. Besteak beste autore honenak dira "Adiemus" eta "Palladio" Allegretto ezagunak.

Erregistroa erabat aldatuta, Txirri Mirri eta Txiribitonon "Behin edo behin" abesti sakona ere kantatu zuten. Xabier Sarasola beasaindarrak abesbatzarentzat egindako moldaketa aurkeztu zieten lasarteoriatarrei.

80. eta 90. hamarkadetan Toto kantariak hain ezagun egin zuen "Afrika" kantuak eman zion ukitu exotikoa kontzertuari.

Erritmo lasaiek eta musika koralak ere izan zuten lekurik

asteburuan. Morten Lauridsen amerikarraren "Sure on this shining night" abestu baituzten ikusleen gozamenerako.

Kontzertuak une mistikoa ere izan zuen. Eduardo Mokoroaren "Sorgin Dantza" abestiaren tonu aldaketa berrituz, akelarre antzeko bat irudikatu zuen agian kontzertuko indar handieneko momentua eskainiz.

Azkenik, "Wangol" pieza eskaini zuen Alboka abesbatzak. Afrikako esklabuek Haitira eramandako pieza da, Karibeko erritmoak eta Afrikakoak uztartzen dituen obra deigarria bi hizkuntzatan idatzia dago, haitieraz eta Afrikako dialektoz.

Pieza guzti horietan hainbat kolaborazio izan zituen Albokak. Perkusioan Maider Errasti, Iker Olano eta Carolina Muñozen laguntzarekin hainbat obra jantzi eta osatu egin zituzten.

Horretaz gain, ohi bezala,



Eserleku guztiak beteta Brigitarren komentuan Albokaren kontzertua ikusteko.

Amaia Dorronsoro pianojolearen laguntza ere izan zuen Albokak kantu askori notak jarritz.

Finean, gozatu ederra hartu zuten bai Albokako kideek beraiek zein euren ordubete inguruko emanaldia ikustera hurbildu ziren herri-tarrek.

Alboka abesbatzaren hurrengo emanaldia San Pedro jaietan izango da, festen urteroko meza nagusian hain zuzen.



Montse Latorrek zuzendu zuen abesbatza, perkusiozko instrumentuak ere izan ziren.

Elkartasun jaialdia egin zuen Ostartek larunbatean

TXINTXARRI

Herriko Ostarte taldeak elkartasun jaia antolatu zuen larunbatean. Egun osoan zehar Brigitarren parean kokatutako postuan jatekoak izan zituzten, tonbola berezia eta bestelako tailerrak ere egin zituzten haur eta gaztetxoentzat dirua biltzeko helburuarekin.

Ostartek ADSIS fundazioak, El Alto Bolivian garatzen duen UTASA proiektuarentzat dirua biltzeko hainbat ekintza burutu zituen.

UTASA garapen komunitarioaren zentroa da eta pobrezian dauden ume eta nerabeak laguntzea du helburu.

2014-2015 ikasturtean bertan 75 haur eta 50 gazte parte hartzen dute. Ikasketetan laguntza jasotzen dute eta hauek osasun zerbitzu duin bat izaten dutela ziurtatzea dute era berean.

Gazteek gainera, bertan ikastaro eta taller desberdinak



"Irriak elkarbanatzen" lelopean Brigitarren plazan pintxoak, haurrentzako pultserak egiteko tailerra, txapa tailerra, aurpegiak margotzekoak etab. izan ziren festa giroan.

egiteko aukera dute alor profesional ezberdinetan trebatu ahal izateko. Ikasketetan aurrera egin nahi, eta aukera ekonomikorik ez duten gazteentzat bekak ere bideratzen dira egitasmo honen baitan.

Lan honetan jarraitu ahal

izateko, fundazioak ahalik eta laguntza gehien behar du eta Lasarte-Oriako Ostarte taldea bezalakoek eskaintzen dutena beharrezkoa dute.

"Irriak elkarbanatzen" lelopean Brigitarren plazan haurrentzako pultserak egite-



ko tailerra, txapa tailerra, aurpegiak margotzekoak izan ziren festa giroan.

Tonbola solidarioa ere egin zuten eta bizikleta bat zozketatu zuten parte hartu zuten herritarren artean. Egun osoan zehar, taberna jarri

zuten pintxo eta bizkotxoekin eta oso harrera ona izan zuen Ostarteko kideek esan bezala.

Herritar asko hurbildu ziren Ostarteren proiektuaz interesatuta antolatzaileei galderek egin eta euren ekintzetan parte-hartzera.



Helduen Klaketak Klak antzerkiak ikusleen barre algarak eragin zituen larunbat iluntzean.

Datorren urterarte!

Amaitu da Kukukaren 12. antzerki eta dantza astea

Asteburuan eman dio amaiera Kukuka dantza eta antzerki eskolak urteko zita garrantzitsuenetako bati. Ostiralean gazteen txanda zen printzipioz, dantza garaikidea eta Izarren Argia saioa eskaini behar baitzuituzten, baina azken orduko arazoek bertan behera utzi zuten saioa. Larunbatean ordea bai, heludek Klaketak Klak antzezlan eta dantza garaikidea eskaini zituzten Manuel Lekuonan. Igandean, azken egunean, Dantzaz Blai eguna izan zen euskal dantza eta sorkuntza uztartuz.

TXINTXARRI

Larunbata eta igandean eskainitako emanaldiekin amaitu da antzerki eta dantza astea.

Larunbatean helduen Klaketak Klak antzerki gozatzeko aukera izan zuten herritarrek, umorez, Miren Gojenolaren zuzendaritzapean obra ederra osatu zuten

Kukukako kideek.

Horretaz gain, dantza garaikidea ere izan zen ikusgai Manuel Lekuona kultur etxean.

Dantzaz blai eguna

Itxiera ekitaldian, Euskal Dantza eta Euskal Sorkuntza izan ziren protagonista eguerdian.

Euskal dantzak prestatzeko lanetan Loli Errazkin, Axun

Yarza eta Junkal Perez aritu dira. Euskal Sorkuntzan aldiz, Maider Oiartzabal, Eneritz Balerdi eta Oihana Pozueta.

Obra denak ikusgarriak izan ziren oso, lehen zatian tradizionalagoak eta bigarren-gokoak berrikuntzaz beteak, indar handiagoko musikaz, ahalegin fisiko handia eskatzen zuten dantzak eskaini zituzten, beti ere euskal dantzaren esentzia jarraituta.

Arratsaldean berriz, kolorez eta argi-jokoaz girotutako dantza garaikidea egin zuten kultur-etxean.

Dena den, Kukuka presente egongo da San Pedro Jaientan, omenduak izango baitira. Beraz, ziur kale txoko guztiak kolorez eta irribarrez jantziko dituztela.



Igandean Dantzaz Blai eguna izan zen, euskal sorkuntza emanaldiek txalo zaparrada handiak jaso zituzten.

Asteburuko argazkiak txintxarri.info atarian ikusgai.

LABURRAK.-



Pili Bodegas irabazle Santurtziko triatloian

Igandean, ekainaren 8an, Santurtziko bigarren triatloia ospatu zen. Sprint distantziako proba honetan 145 atleta izan diren lehian, horien artean Pili Bodegas eta Peio Fadrique herritarrak izan ziren. Pili Bodegasek garaipena eskuratu zuen.

Parte hartzaileek 750 m. igeri, 20 km. txirrintan eta 5 km. lasterka egin behar izan zituzten. Pili Bodegas lehen emakumea izan zen 1:07:19ko denborarekin. Peio Fadriquek berriz, 01:19:06 denbora egin zuen.

Asteburu honetan berriz, Zarautz eta Donostiako triatloi probetan izan dira herritarrak.

Bazpiko txirringulari gazteak ederki

Bazpi txirringularitzako gazteak aurreko asteburuetan hainbat lasterketetan izan dira eta taldeko gazteenal podiumean izan ziren.

Lezoko sarian Aimar Unanue lehenengo eta Asier Pozo hirugarren izan ziren alebin mailan. Infantiletan, berriz, lehen hamarren artean amaitu zuten Asier Ibarbira, Manex Altuna eta Iraitz Illarramendik.

Kadete mailako gazteak, berriz, Euskadiko txapelketan izan ziren lehian Araban, ekainaren 7an. Honetan Iñigo Altuna 13. izan zen.

Bestalde, jubentilek Udaberri lasterketan eta Gipuzkoako erlojupeko txapelketetan parte hartu zuten.

Taldeko lehiaketan, maiatzaren 31ean, jubentile A taldea bosgarren izan zen. Banakakoa berriz, asteazkenean, ekainaren 11an izan zen Aizarnazabalen honetan Jon Ander Unanue bosgarren izan zen eta Xuban Errazkin hamabigarren.

Udaberri lasterketan, ekainaren 7an, Xuban Errazkin seigarren izan zen.

PILOTA.-

Lasarte-Oria Herriarteko finalerdietan

Larunbatean, pilotako zale-tuek Lasarte-Oria eta Alegiren aurkako norgehiagoka interesgarriarekin hitzordua bazuten ere, ezusteko handia hartu zuen ez baitzen partidarik izan.

Ostirala arratsaldean Alegik txapelketa uzten zuela jakin zuen Lasarte-Oriak.

Jose Felix Solanok taldeko arduradunak jakinarazi digunez, "ez dute arrazoi handirik eman. Baina senior mailan, Asegarcerekin jolastuko duen jokalaria bat du, Artola, eta horren ondoriozko erabakia izan daiteke".

Era honetara, Lasarte-Oriak Herriarteko esku pilotako finalerdietarako txartela lortu du.

Joanekoa irabazita

Hala ere, bidea egina zuen taldeak. Joaneko jardunaldian, Lasarte-Oriak 2 eta 1



Lehen fasea zen aurten helburua baina dagoeneko Lasarte-Oria finalerdietan da.

irabazi zuen Alegin eta 13 tantoko errenta atera zion arerioari. Kadete mailako gazteek ezin izan zuten ezer egin Alegiko bikotea nagusi izan baitzen hasieratik. Jubentile eta seniorrek berriz, haien partidak irabazi zituzten. Jubentilek nagusitasunez, 0-22 eta seniorrek 15-22.

Beraz Alegik final-laurdenak jokatzeari uko eginda, orain Donostia izango da finalerdietako arerio. Joaneko partida Donostian izango da datorren astean, eta itzule-

GIMNASTIKA.-

Kadete taldea Euskadiko txapelkun

Larunbatean erakustaldia eskainiko dute kiroldegian

LOKEko gimnastak Euskadiko txapelketan izan dira lehian aste hauetan. Kadete, jubentile eta senior mailako neskek taldeka, zein bakarka egin dute lehia. Kadete mailako taldeak lehen postua eskuratu zuten.

TXINTXARRI

Euskal Ligako bi jardunaldi ezberdin izan dituzte LOKEko gimnastek. era ederrean eman zioten amaiera ikasturteari atzo.

Kadete mailako taldea, ekainaren 1ean Leioan izan zen Euskal Liga jardunaldian.

Honetan lan bakarria egin zuen, bost sokarekin koreografia eta 8,100 puntu eskuratu zituen. Honek saillkapeneko lehen postua eta Euskadiko titulua eman zion taldeari.

Maite Rueda entrenatzaileak azaldu digunez lan paregabea egin zuten neskek, akatsik gabea.

Bestalde, ekainaren 7an, Durangon jubentile eta senior



Kadete mailako taldea lortutako urrezko dominarekin. LOKE GIMNASTIKA

mailako gimnasten txanda izan zen. Guztiak lehen hamarren artean izan ziren.

Jubentile B mailako Ainara Apeztegiak 6 postua eskuratu zuen. Tresnak kontuan izanik, borretan 5. eta xingola lanean 6. izan zen gaztea,

Jubentile A mailako taldeak ere 6. postua eskuratu zuen borren lanarekin.

Eta azkenik, Senior A mailan Aizpea Arroyok 4. amaitu zuen.

Entrenatzaileak gimnastak oso urduri atera zirela azpimarratu du eta horrek hainbat akats eta trena erorketa egotea ekarri zuela.

Erakustaldia

Bestalde, gimnastek era ederrean emango diote amaiera ikasturteari.

Hurrengo larunbatean, 11:00etan, Sasoeta-Zumaburu, Landaberri, zein LOKEko bakarkako zein taldeetako neskek erakustaldia eskainiko baitute kiroldegian.

Erakustaldia igande honetan zegoen aurreikusia baina arazo teknikoak direla eta atzeratu behar izan dute.

Bertan ikusi ahal izango dira besteak beste, kadete mailako taldearen lana edo Naroa Sanz Gipuzkoako azpitxapelkunarena.

JUDO.-

A. Garrido hirugarren Manresan

Ekainaren 7an, LOKEko Ander Garrido gaztetxoak Manresako alebin eta infantil mailako nazioarteko txapelketan izan zen lehian eta bi domina zituen gazteak, banaka brontzezkoa eta taldeko zilarrezkoa.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, maila handiko txapelketa izan zen. Ander Garridok 34 kilo azpiko mailan parte hartu zuen eta judoka frantses eta katalanen aurka egin behar izan zuen

borroka. Azkenean ezin izan zituen judoka katalanak gainditu eta hirugarren postua eskuratu zuen.

Taldeko txapelketan Hondarribiko Ama Guadalupeko taldearekin ere borrokatu eta podiumeko bigarren mailan izan zen.

Orain judokek atsedena hartzeko tarte izango dute. Izan ere, atzo goizean maila guztietako gazteek ikasturte amaierako erakustaldia eskaini zuten kiroldegian.



Agenda

Asteartea 17 eta asteazkena 18, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Ikasturte amaiera

Udal Musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte. Instrumentuen doinuez bakarka, taldeka edo pianoaren lagun-tzaz gozatzeko aukera izango da, baita ikasleen ahotsak entzuteko ere. Honetaz gain, asteazkenean, maila gainditu duten gazte eta helduek diplomak jasoko dituzte.

San Pedro Jaiak

BIYAK BAT ELKARTEKO EGOITZA

Asteazkena 18, 16:00etan

Rabino txapelketa izango da.

Osteguna 19, 16:00etan

Seietako txapelketa izango da.

Ostirala 20, 16:00etan

Partxis txapelketa izango da.

KIROLDEGIA

Larunbata 21, 10:00etan

Biyak-Bat elkarteko kideek aerobik erakustaldia egingo dute.

Larunbata 21, 12:00etan

Emakumeen Zentroko kideek batuka, aerobik eta sabel dantza erakustaldiak eskainiko dituzte.

San Juan Sua

OKENDO PLAZA

Astelehena 23, 21:30etik aurrera

Udaletxe auran zortzikoa dantzatu ostean, kalejiran Okendo plazara joango dira Erketz EDT eta soka dantzan parte hartuko dute herritarrek. Ostean, Okendo plazan soka dantza eta San Juane guneko doinuak dantzatu dira.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekaina amaiera arte

Euskal Herriko 2. Batukaden Topaketako argazki erakusketa ikusgai izango da.

EMAKUMEEN ZENTROA

Maiatzaren 16tik ekainaren 27ra

Gehituk antolatutako "Emakume eta gizon homosexualak historian zehar" erakusketa ikusgai.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 20, 22:00etan

Juncoren rumbaz gozateko aukera. Reencuentros diskako doinuak eskainiko ditu.

Larunbata 21, 22:00etan

Jam Sessioa izango da. Oholtzara igo nahi duenak mikroa bere eskura izango du.

Larunbata 21, 00:00etan

Trace dj-aren musika elektronikoaz gozatzeko auketa izango da.

Asteartea 24, 20:00etan

Metalaz gozatzeko gaua izango da,

Witch mountain, Black tusk eta Dawn-fall of Gaia taldeen eskutik. Sarrerak aurretik 10 euro; leihatilan, 13 euro.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 20, 23:30ean

Purple explosive jackets taldearen emanaldia eta Oreindik taldearen azken kontzertuaz gozatzeko aukera. Doan.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 20, 20:00etan

Lan eta Lan antzerki taldeko kideek "Las nueras de Adan" lana eskainiko dute. Sarrera interneten, 3,24 euro; leihatilan, 3,5 euro.

Dantza

OKENDO PLAZAN

Larunbata 21, 19:00etan

Erketz EDT, Erketz Txiki eta Erketzeko lagunak taldeen emanaldi koloretsua izango da. Euskal dantzez eta musikaz gozatzeko aukera paregabea.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehena San Pedro Jaiekin bat egiten duenez, hilabete honetan odol ateratzeko ekainaren 24ean, asteartea izango dira. Beti bezala, Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era izango da hitzordua. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Bidaia abuztuan Italiara

Lasarte-Oriako talde batek eta abuztuaren 2tik 12ra Italiara bidai bat antolatzen ari da. Bidai honetan, Siena, Napoles, Vesubio, Pompeya, Capri eta Roma ezagutuko dituzte.

Bidaia literadun autobus batean egingo dute eta gau gehienak bertako hoteletan pasako dituzte.

Informazio gehiago nahiez gero, deitu 638 051 794 telefonora edo e-mail bat bidali lasartetalea@gmail.com helbidera.

Taldeak herritarra animatzen ditu, "primeran pasako dugu eta!!".

Zabaleta jaietako zozketa

Zabaletako jaietan Goiegi jatetxean 4 bazkariren zozketa egin zen. Zerbaki onuraduna 3.481 da. Auzoko elkar-

tearekin jarri behar da harremanetan txartelaren jabea.

Biyak Bat Brionesera

Biyak Bat elkarteko kideek ekainaren 19rako ibilaldia antolatu dute Errioxako Briones herrira.

Goizean "Dinastia Vivanco" ardo museoa bisitatuko dute eta arratsaldean berriz, Briones ezagutzeko aukera izango dute bertatik ibilbide bat egingo da. 8:00etan aterako dira parte hartzaileak Biyak Baten egoitza Brionesera.

Izena emateko irekia dago. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek berriz, 40 euro.

Galdutako pultsera

Haur baten urrezko pultsera bat aurkitu dut inskripzio bat dauka. Deitu 620179188 telefonora. Izaskun

Galdutako gauzak

Azkorteko Erromeria egunean Ttakun elkarteko kideek Quechua markako txaleko beltza, L tamainakoa aurkitu zuten arkupeko bankuetan.

Ttakuneko bulegoan dago jantzia beraz galdu duenak harrera orduan jaso dezake.

Sarean

Euskal ondarea zure mugikorrean

Euskal Herriak milaka urteetako historia du eta honek ondare aberatsa izatea dakar. Ondare horri buruz gehiago jakin nahiez gero hona hemen aplikazio bat, KulturMapp.

Euskal Herriko ondarearen gida bat da Kultura, ondare edota turismo edukien gaineko informazioa eskaintzen du, guztia mugikorretara egokituta eta geokokatuta.

Monumentu, eraikin, pertsonaia, gertaera historiko eta abarren informazio zehatz eta laburra eskaintzen du aplikazioak.

Honetaz gain, antzinako irudien bidez, tokiaren egungo itxura izan arteko bilakaera ikusteko aukera ematen du.


Eta audio-gida ere badu aplikazioak. Modu erosoan edukien audio irakurketaren bidez tokiak ezagutzeko aukera ematen du audio-gida honek.

Monumentu, eraikin, pertsonaia edo gertaera historiko hauen bilaketa testu zein ahots bidez egiteko aukera ematen du aplikazioak.

Halaber, turismo bulegoen kokapena zehatza ere izango duzue mugikorrean.

Bilbao, Donostia, Iruña, Gasteiz, Baiona, Tolosa, Bastida... erabiltzaileak bere inguruko gune garrantzitsuetaz gozatzeko proposa.

KulturMapp proiektuak Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du eta Android plataformarako dago soilik.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Kanpotik gonbidatuta etorritako etxeek ere primeran pasa zuten.



Urtero bezala, jendetza bildu zen meza rozieroan.



Festaren bi gune nagusiak Zumaburu eta Atsobakar izan ziren.



Rocioko amabirjinari dantzan eta kantuan egin zioten Zumaburuko eliza kanpoaldean, Atsobakarrerainoko prozesioa hasi aurretik.

Rocioko erromeria, eguzkipean

Meza rozieroa eta amabirjinaren prozesioa izan dira Semblanteren asteburuko zita nagusiak

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak XXI. Rocioko erromeria ospatu du asteburuan Atsobakar auzoan. Larunbatean kontzertuak eta erromeria izan baziren ere, festaren egun handia igandea izan zen, meza rozieroa, birjinaren prozesioa eta ohorezko ardoaren ospakizunekin. Ohi bezala, aurtengoan ere bisitak jaso ditu Semblantek Irun, Erreterria, Andoaion eta Arrasate aldetik.

TXINTXARRI

Ohitura den legez, larunbat eguerdian eman zitzaion hasiera XXI. Rocioko Erromeriarri, Astobakar auzoan. Handik aurrera, bi egunetan ez zuen etenik izan herriko andaluziarren jaiak.

Larunbateko ekitaldi nagusiak arratsaldean izan ziren, herrian ezaguna den Merche Montes kantariaren ikuskizuna, gonbidatutako etxeetako koru roziero ezberdinen emanaldia eta gau partean, Amigos del Sur taldearen emanaldia egin zirelako.

Igandean festa nagusia

Semblante Andaluzek antolatutako jaialdiaren egun handia eta jendetsuena atzokoa izan zen.

11:30etan meza rozieroa ospatu zuten Arantzazuko Amaren parrokan, "Semblante Rociero" koruak abesturiko piezek girotuta.

Behin meza amaituta, Rocioko birjina elizatik atera eta kanpoan zain zeuden herritarren koru eta gitarra akordeen laguntzaz hainbat kantu eskaini zituzten kofradeek birjina bizkarrean hartu eta Atsobakarrerako bideari ekin aurretik.

Auzoko parkera iristean, herriko agintari eta etxe gonbidatuetako kideak zain zeuzkaten ongi-etorria emateko. Urtero bezala, ardoarekin egin zuten topa amabirjinaren aurrean.

Behin Atsobakarreko parkeko belardietan bazkari legea eginda, Irungo Embrujo, Erreterriako Concha Rociera eta Aljarafe, Andoaingo Triana eta Zuena eta Arrasateko Al-Andalus elkarteek euren ikuskizunak eskaini zituzten ikurrina eta andaluziako banderaz apainduta zegoen eskenatokiaren gainean. Guztiek "soleá", "alegría", "tango" eta "runba" ederrak eskaini zituzten.

Ilunabarrean berriz, Alegria de la Sierra taldearen emanaldia izan zen birjinari azken agurra eman aurretik. "Salve Rociera" kantatuz, emozio handiko momentuak bizi izan zituzten Semblanteko kideek.



Autoritate eta gonbidatuei ongi-etorria emateko, ohorezko ardoarekin topa egin zuten Semblanteko kideek.